

ATRAE 2023 DEIALDIA- TALENTU FINKATUA ERAKARTZEKO DEIALDIA

UPV/EHU-N AURKEZTEKO EPEA ZABALIK DAGO

Interes-adierazpenak eta beste dokumentuak bidaltzeko **BARNE EPEA 2023ko uztailaren 10ean** bukatuko da.

Eskaerak aurkezteko **KANPO EPEA 2023ko uztailaren 27an** bukatuko da, 14:00etan.

Deialdiaren xedea:

Talentu zientifiko eta berritzailea Espainara erakarri eta atxikitzeko Planean (Talentua garatu , erakarri (eta atxikitzeko estatuko programaren barruan-PEICTI 2021-2027) aurreikusitako hiruretako bat da.

Helburuak:

- 1) Ikerketa talentu finkatua barneratzea erraztea, nazioartean ospe handia duena, eta duela gutxi atzerrian bere lanbide-jardueraren aldi garrantzitsu bate gin duena. Helburua da Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema (SECTIÇ) lehiakorrago baterantz aurrera egitea, berau sustatzeko, estatu mailan eta nazioartean.
- 2) Ikerketa bat hasteko edo finkatzeko prozesua erraztea, jardueraren IN BURU DUEN I+G+B proiektu bat finantzatzuz.
- 3) Espazio eta laborategiak egokitzen eta berritzen laguntzea, eta proiektua gauzatzeko behar den ekipamendua hobetzea.

Eskatzailearen bete beharreko baldintzak (deialdiaren 6. Artikuluan ezarritakoaren arabera):

-Eskaria EHUren bitartez aurkezteko beharrezkoa da EHUko ikerketa talde baten babesa egiaztatzea.

-Doktore gradua 2016/01/01a baino lehenagokoa izan behar du.

-Atzerriko ikerketa-erakundeekiko lotura profesionala eduki izana, gutxienez 5 urtekoa, 2016/01/01etik eta eskabideak aurkezteko epea hasi arte.

-Ikertzaile bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztea

Jarraibideak

EHUk ikerketa talde baten babesa duten jasotako eskaera guztiak aurkeztuko ditu.

EHUko ikertzaile batek bidali behar du proposamena convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera. Mezuaren gaian jarri "ATRAE 2023 DEIALDIA".

Datozen dokumentuak bidali beharko dira:

1. INTERES-ADIERAZPENA, DIGITALKI SINATUTA (EHUko [web orrian](#) argitaratutako ereduaren arabera)
2. ESKAERA ELEKTRONIKOAN SARTU BEHARREKO INFORMAZIOA (deialdiaren 13. Artikuluaren arabera).
3. MEMORIA ZIENTIFIKO-TEKNIKOA (Deialdiaren 13.2.a) artikuluan arabera. Dokumentu ereduak AEIren web orrian argitaratu da, esteka honetan: <https://www.aei.gob.es/convocatorias/buscador-convocatorias/ayudas-incentivar-incorporacion-talento-consolidado-programa-1>).
4. CVA (Deialdiaren 13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera Dokumentu ereduak AEIren web orrian argitaratu da, esteka honetan: <https://www.aei.gob.es/convocatorias/buscador-convocatorias/ayudas-incentivar-incorporacion-talento-consolidado-programa-1>).)
5. BESTE DOKUMENTU BATZUK, KASUA BADA: ERREFERENTZIA-GUTUNA, ETAB. (Deialdiaren 13.3 artikuluan ezarritakoaren arabera)

GARRANTZITSUA: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 e) artikuluan eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Ebazpenean (UPV/EHUREKIN DITUZTEN HARREMAN ELEKTRONIKOETAN INTERESA DUTEN PERTSONEN ETA BERTAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN IDENTIFIKAZIO ETA SINADURA ELEKTRONIKOARI BURUZKO JARRAIBIDEA ONARTZEN DUENA) ezarritakoaren arabera, **eskaera elektronikoki sinatu behar da.**

Informazio gehiago:

WEBINARIOA: <https://www.youtube.com/watch?v=sBD3NoQW3w8>

AURKEZPENA <https://www.aei.gob.es/convocatorias/webinarios-convocatorias>

DEIALDIA AEI: <https://www.aei.gob.es/convocatorias/buscador-convocatorias/ayudas-incentivar-incorporacion-talento-consolidado-programa>

Dokumentu ereduak ez dira oraindik argitaratu. [Deialdiaren estekan](#) argitaratuko dira.

Harremanak UPV/EHU

Emaila: igz.deialdiak@ehu.eus